

## HERRI ERAIKUNTZA

**Pentsatu eta ekin. Pentsalaria eta ekintzailea zen Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegi». Herri identitatearen eta eraikuntzaren erdigunean jarri zuen hizkuntza. «Euskarak egiten gaitu euskaldun», aldarrikatu zuen.**

## EZTEN LANA

**Euskaltzain oso izaterik ez zuen lortu. «Euskaltzainditiak kanpo ere badago non lan egin», zioen. Ez zuen etsi euskara batua aurrera atera arte. Ezten lana egin zuen, nahiz eta oraindik ez duen jaso behar bezalako aitortpen ofizialik.**

# Txillardegi, hizkuntza estandarren eragile tematia

Xole ARAMENDI | DONOSTIA

Mitxelena ez, Krutwig izan zen benetako profeta euskara batuaren auzian, Txillardegiren esanetan. «[...] Euskalkikeria eta dialektalismo guztien kontra zegoen erabat. Euskara europartu, batu eta 'desbaserritartu' egin behar zela esaten zuen. Bestela, gureak egingo zuela [...] Euskeraren dialektalismoak kezkatzen ninduen. Horretan berekin bat nentorren». Hala adierazi zion Txillardegik Joxean Agirri, honek "Hitza hitz, Txillardegiren solasean" (Elkar) liburuan jasotako elkarrizketa luzean.

«[...] Askok ikusten genuen euskara bera osatu eta gaurko harremanetarako prestatu beharra zegoela, eta hori orain bertan egin zitekeela uste genuen. Mitxelena ez zuen sinesten berehala egin zitekeenik [...]». Izan ere, Txillardegik 1958an egin zuen "proposamenaren bidean" txosten mardulari erantzunez, 1959an, Mitxelena zera zioen: «Garai honetan Euskaltzaindia ez dago horretarako. Gutxi gora behera bat gatzoz. Ez dut uste ordea gaur batasuna egin ditekkeenik».

Alegia, aurrerapausoak emateko garai zela ikusi zuen anti-guatarrak, nahiz beste batzuk ez ziren hain baikor, oraindik horretarako nahikoa baldintzarik ez zegoela iritzita.


Euskararen aldeko ekintzaile eta borroka politikoa bat eginda ikusi zituen Txillardegik. «Oso azkar ohartu ginen euskararen auzia politikoa zela erabat. Oraindik gazteak ginela ikusi genuen hori, 1950 inguruan,

eta politikatik kanpo konponbide zaila zuela erabaki genuen, frankismoaren barruan ez zuela euskararen egoerak irtenbiderik, alde batetik, eta bestetik hizkuntza baten auzia ez dela hitzunen borondate kontua bakarrik, erakunde batzuen -unibertsitatea, prentsa, telebista-sostengua behar duela», azaldu zuen. «[...] Gu 'kulturalismo apolitikoa' ren aurka ginen. Sustarritik politika egoera aldatu gabe, abertzaletasunetik kanpo, euskararen egin zuela ikusten genuen eta borroka politikoa sartu ginen bete-betean».

Gotzon Aurrekotxeak (Dima, 1954) maisu izan du. Irakasle lehenik, lagun ondoren, 2004an Txillardegi gogoan Donostian egin ziren jardunaldietan ez zuen zalantzarik egin hura euskara batuaren aita izendatzean. Halaxe berretsi digu. «Berebiziko garrantzia dauka euskara batuaren garapenean».

Etsipenik gabeko borroka izan zen berea. «Borroka oso egoskorra egin zuen, tematia. Ikusten zen batzuetan etsita bezala, baina berehala hartzen zuen indarra eta ekin egiten zion lanari. Eta ez zen gelditzen. Gramatika kontuetan ez bazen herrigintzan zen... presentzia ikaragarria zuen. Askorentzat maisu izan zen arlo askotan. Gure belaunaldiaren ikur bat izan da eta ikur horrek inoiz ez digu huts egin».

2004ko hitzaldi hartan hala esan zuen: «Txillardegi izan da euskara batuaren eragile, teoritzaile, txostengile, gidatzaile, hedatzaile eta defendatzaile handienetakoa». «Arlo askotan eraginkorra izan da. Ez dut



Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegi», 2010eko irudian.

JON URBE | FOKU

## POLITIKOA

**«Politikatik kanpo konponbide zaila zuen, frankismoaren barruan ez zuen euskararen egoerak irtenbiderik, alde batetik, eta bestetik hizkuntza baten auzia ez da hitzunen borondate kontua bakarrik, erakunde batzuen -unibertsitatea, prentsa, telebista-sostengua behar du».**

esaten bakarra izan denik, inoiz inora, baina era batera edo bestera gai zen mundu guztia mugitzeko eta sinergia guztiak biltzeko eta borroka horretan sinesarazteko», dio.

Ez zen Txillardegi atzera begira egotekoa. «Inoiz ere ez, beti aurrera. Zer behar zen, hari helduz beti. Gramatika bideratu zenean prosodiarekin hasi zen eta azentuari buruzko proposamen piloa egin zuen. Euskaltzaindiak entzungor egin diena orain arte, ondorengo beste proposamen batzuei egin dien bezala», esan du dimoztarrak.

Aitzindari izan zen morfologian, fonologian, azentuan. Hala nabarmendu du Aurrekoetxeak. «Euskaltzaindiak 'Euskara' agerkarian agertzen zituen bere erabakiak baina hori jende gutxi jarraitzen zuen. Txillardegik euskara batuaren hedatzaile lana egin zuen batetik, eta bestetik, arautu gabeko gaietan proposamenak lantzen zituen. Bere jardueraren bi ardatzak izan ziren».

Txillardegik ez du merezitako onespeneik eta aitortpen ofizialik jaso. Ez oraindik. «Pena handia da eta segur aski bere izaerak baldintzatu du pixka bat. Idatzietan berak esana da bere garaian euskaltzaleen ere euskararen alde eginen zutela, baina idatzizkoan eta bere bizitza normalean erdaraz eginen zutela. Eta hori zela-eta jende askorekin mututu zen, denok dakigu nolako ondorio pertsonalak ekartzen dituen», adierazi du Aurrekoetxeak.

## «Injustizia»

Euskaltzain oso izaterik ez zuen lortu. Horrela aitortu zuen bere samina. «[...] Garai batean ilusio handia eginen zidan euskaltzaindiak, Euskaltzaindiaren barrutik lana askoz ere hobeto egin nezakeela pentsatzen nuelako. Une batean Baionako ordezkari zena neuk eramatea proposatu zidanen [...] Alabaina, trantsizioa etorri zen, Autonomi Estatutua, eta jarrera ofizialen kontra geundenoit alde gutxiak itxi zigizkion. [...] Ez da Euskaltzaindiako kontua bakarrik. Marjiazio honek sekulako mina ematen zidan lehen. Injustizia bat zela pentsatzen nuen. Baina badira bost bat urte paso eginen dudala. Euskaltzaindiatik kanpo ere badago non lan eginik [...]». Liburua 1996. urtean eman zuen argitara Joxean Agirrek.

Dimisioaz, hauxe dio Aurrekoetxeak: «Palanka bezala erabiltzen asmatu zuen. Horrek segur aski Euskaltzaindiaren handitu egingo zuen Txillardegiren figura edo errespetuz hartzea, dimisioa aurkezteko -garai hartan ez zuen inork eginen- auzardia erakutsi zuelako».